

Uzta ospatzeko

BARATZEZAINZA puri-purian da. Baten batek esana du: zoriontsu bizi nahi baduzu, baratze bati ekin eta heldu. Zoriontsuago bai, baina nekatuago ere badabilta nire inguruko baratzezain berriak. Ni, jakina, gustura nabil, bizigarri ederra da noranahi zabaltzen ari den giro hau. Lurra lantzea lanbide duenaren duintasunari bultzada bat emateko ere ez da txarra baratzera itzultze hau...

Heldu, bada, aitzurrari. Baratzean nondik nora abiatu behar duen galdezka datorkidanari hitz bat gordetzeko esaten diot: gozatu. Ondo pasatzea bezalakorik ez da, langintza gogaikarrienean ere... Zenbait urrats ere komenigarriak dira: begiak eta belarriak ireki. Begiratu inguruan lehendik dauden baratzeei. Zer landatzen dute, noiz, nola... Eta baratzezainekin hitz egin. Izuak etxean utzi eta galdetu. Ari denari baino errazago esaten zaizkio kontuak eta triki-mailuak ezjakinari. Han eta hemen, zer ikusi eta zer entzun, adi ibili. Jakin-mina piztu eta landareei begiratzen ikasi, desberdinak eza-gutu, elkarri nola eragiten dioten...

Nolako baratzea nahi-ko zenukeen irudikatu, mapatxo bat egin. Laguntza eskatzeko lotsetan ez ibili, beldurak uxatu eta giza-legeari heldu: lan handi eta nekosoetarako laguntza eskatu: simaurtzeko, lurra iraultzeko... Baratzea zaindu, baina ito gabe! Presarik ez izan, denbora hartu eta eman: landare bakoitzak bere bizitza du, geuk bezalaxe. Idatzi: egiten dena, gertatzen dena, sumatzen dena, dena bildu eta jaso. Baratze bakoitzak mundu bereizi bat da. Zurearen lurra, kokapena, norabidea eta ingurumena dituen beste inongo barutzerik ez da. Eta uztak ospatu. Lagundu dizutenekin ongi pasa; eta jateko orduan saio berriak egin, ausardia pittin bat!

Makina bat aldrebeskeria ere ikusten da. Baratzezaintzak, publikoak izanik, badu lehia kiratsa. Uztak zeinek azkarrago ekarri, zeinek handiago... Jendeak ikaragarriko lanak hartzen ditu garaiz



DANI BLANCO

kanpoko lanetan. Gehienetan alferrik. Urtez urteko eskarmen-tuarekin egutegi pertsonalizatua osatzea da onena.

Landare guztiak bertakotu eta egokitu egin behar dira; zaindu itzazu. Ikasi zein landare beste zeinen aldamenen jarri edo ez: horietan ere lagunak eta etsaiak dira. Batzuen ondoren beste batzuk hobeto etortzen dira. Plangintza eskasa maiz antzematen da. Handinahia ez izan, tamaina hartu.

Eta, usaintsuak eta lore emailak diren landare eta zuhaixkak jarri inguruan; lagun onak izango dituzu. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Nire etxe ondoan inoiz ez da egon ereinotzik, baina orain urte batzuk bi jarri nituen eta momentu honetan ondoko lurak bete-beteta daude landare horrekin. Lurraren osaerak badauka zerikusirik? Txoriek zabaltzen dituzte loreak?

Juan Daniel Barandiaran (Zamudio)

Kaixo Juan Daniel. Ereinotza (*Laurus nobilis*) ederki bizi da Euskal Herriko isuri atlantikoko lurretan. Toponimoetan maiz agertzen da eta horrek ere zerbait adierazten du (Ereño, Ereñotzu, Ereñozar...). Lurak zeresana badu, baina bestela hedatuko ziren. Zeuk landatukoetatik abiatuta bi aukera ikusten ditut: edo fruituak txoriek jan eta haien barruko haziak sakabana-tu dituzte, edo landatutako bi haien azaleko sustraietatik landare berriak sortu dira.

Laster loretan dira eta gozatu! ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

• Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23



☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net